

Egungo euskal antropologiaren polemika zaharra

Fito Rodriguez Bornaetxea
EHUko irakaslea

Antropologian ere islatzen diren borroka ideologikoek eremu horretan lan egiteko tankera zein aukera ezberdinen berri ematen dute. Talde zein gizabanakoen artean sortzen diren polemiketan eskola bakoitzaren atzean dagoen Euskal Herriko izaerari buruzko irudia aurki daiteke. Hala eta guztiz ere, etnografiaz zein etnologiaz gain Euskal Historia-Antropologiaren arabera datu-bilketa "emic" (indigenista) geurean egitea lagungarri gerta dakioke euskal kulturari deskolonizazio-egoeratik ateratzeko. Hauxe litzateke, beraz, gure proposamena.

Ideological battles which reflect also in Anthropology make us know about different ways and opportunities to work in that field. In polemics arisen among groups or individuals, it does exist an image of the character of the Basque Country behind each school. However, apart from ethnography and ethnology, from the Basque History-Anthropology we find that data "emic" collecting, is helpful to take the Basque culture out of descolonialisation situation. And this is, precisely, our proposition.

Polemos jainko greko-asiarra, Heraklitori babesa eman ohi zion berbera, gudaren jainkoa dugu eta, ildo horretatik, eztabaiden maitale.

Egun, Euskal Kultura aitzaki, antropologiaren inguruko polemiketara hurbiltzen garen une berean berriz, bertako eztabaidetan gerra zahar baten itzala antzematen dugu. Espainiar zein Frantziar kultura arrazionalistek, beren menpekoekiko ilustratu bezain despota direnak, kultura publiko pribilegiatuak garatu ahal izan dituzten bitartean¹, etengabe erasotzen diete eskema haietatik kanpo daudenei, euskaldunoi kasu.

Antropologia-liburuetan burututako aspaldiko erasoez gain (cf. Aranzadi 1981 eta Pérez-Argote 1984) egungo erasotzaileek, zaharrak berri, zabalpen-aldizkarietako orriak maiteagoak dauzkate (cf. Juaristi 1990, Aranzadi 1992, Unzueta 1992) nahiz eta haietarikoz batzuetan betiko sinadurak somatu (cf. Aranzadi 1993, Azurmendi 1993, Martínez Gorriarán 1993). Hala ere, aipaturiko "euskorofobia"-z aparte beste ezaugarri nabarmen bat dute denen artean: gaztelaniaz idazten dutela euskaldunak izan arren, hau da, beren

kritika-lana funtsean, erdal irakurleei zuzenduta dagoela.

Dena dela, bestalde, euskal nazionalismo politikoak ere berarentzat ideologikoki guztiz premiazkoak izan diren oinarri antropologikoak landu eta zabaldu dituenean erdarara jo izan du batere lotsarik gabe².

Horrela euskaldunok, kolonizaturiko beste herrien antzera³, geureari buruz esan, idatzi eta teorizatu denaz tutik jakin barik, kanporatzen dugun irudia ezin dugu behar bezala ezagutu.

Gaurko honetan ordea, euskaraz eta euskal irakurleei begira, euskal antropologiaren inguruan azken urte hauetan suertatu diren polemika zein polemikazaleen berri eman nahiko nuke. Zehatz eta labur. Hona hemen.

1. Hastapenak

Nazionalismoa, berez, European sortutako eta garatutako ideologia dela argi dagoen bitartean (Guibernau 1994) noizkoa den, oster, ez bide dago oso garbi⁴.

1. «Una característica de las naciones civiles es su empeño en imponer una cultura pública... un nivel elevado de homogeneidad cultural... pero la comunidad étnica dominante no tuvo tanto éxito en la integración de las etnias minoritarias; escoceses y galeses, catalanes y vascos miran todavía a los nacionalismos civiles británico y español como si tuviesen un carácter predominantemente inglés y castellano y favoreciesen una cultura pública inglesa y castellana que invaden las culturas étnicas de las minorías y de las naciones sin Estado» (Smith 1994).

2. Euskal nazionalismoaren formulazio politikoez antropologia aintzakotzat hartu dutela dudarik ez dago. Bera izan da bere zutabe ideologiko funtsezkoena eta horrela aztertzen dute bai Azconak (1984) eta bai, bereziki, Douglasssek (1994).

3. «Este proceso ha transformado las conciencias, en España y fuera de España porque ha revelado a los ignorantes la existencia del hecho nacional vasco; ha revelado claramente que este hecho, aunque singular, estaba lejos de ser único que las grandes naciones encerraban colonias en el interior de las fronteras que ellas mismas se habían construido» (Sartre 1995). Cf. orobat lan honetako "Euskaldi colonizada" eta "Genocidio cultural" izeneko atalak.

4. Izan ere, ezberdina baita Erromantizismoarekin batera eta alemaniar hizkuntzalarien itzalean XIX. mendean sortutako etno-nazionalismoa eta XVIII. mendean, Iraultza lagun, Frantziar garatutako nazionalismo zibikoa, edota XVI. mendean egungo Espainia zein Portugalakoa... Ikus Azurmendi 1995.

Bestalde nazionalismo zibila deituri-koa XIX. mendean jadanik nahiko sendo azaltzen bada ere (Gellner 1983), etno-nazionalismoa berriz, garai hartatik aurrera ari da gorpuzten (Williams 1982). Horretarako, bere aldarrikapenak diskurtso bihurtzeko hain zuzen, garai berean jaiotako gizarte-antropologia, antropologia fisikoa edota etnologia erabili ohi dituzte maiz (Douglass 1995: 92). Hauxe dela eta, nazionalismo etnikoaren aurkako kritiketan bere eduki arrazistak eta bere erro mitikoak ere azpimarratu dira (Juaristi 1987) nahiz eta ikuspegi haiek, berez, garai haietan egiten zen antropologiarekin loturik izan. Hauxe azpimarratzen dute, esan bezala, J. Azkonak (1984), W. Douglasssek (1994) eta J. Zulaikak (1995)⁵. Izan ere, Telesforo Aranzadik edota Joxemiel Barandiaranek egindako antropologia orduko alaba dugu. Garaian garaikoa, XX. mendearen hastapenetan egin ohi ziren gizarte-zientzien parekoa da beraiek landutakoa, eta horrela, jakina, jaso zuen sortzen ari zen lehenengo nazionalismo politikoak, mitoak eta guzti, baina, edozein modutara ere, garai hartan maneiaturako mintzaira zein tresna teorikoak erabiliz.

Dena dela, eta W.A. Douglasssek A.D. Smithen nazio-mitoak euskal nazionalismoaren oinarri antropologikoei aplikatuz frogatu duenez, bertan hastapeneko ideologia honek indar handia badu ere, hartan ez da euskal kultura ulertzeko ikuspegia agortzen⁶. Areago oraindik, mitologia eta guzti, oinarri

antropologiko haien bidez eskuratu bide du euskal nazionalismoak berezko diskurtsoa eraiki ahal izateko hastapeneko aukera, antzerako gutxiagotze bidean egondako beste zenbait herrik egin duen bezala bestalde. Eta hori antropologo batzuek bakarrik euskal etnologiari buruz isekaz nahiz gorrotoz mintzatzeko (Aranzadi 1993) hartu baldin badute, mende hasierako europar antropologia osoaren kontra aritzeko izan beharko luke berez.

2. Antropologiak asmatu egin du Euskal Herria

Oro har, E.J. Hobsbawmek (1983) egindako kritika bada ere Euskal Nazionalismoaren aurka, eta zenbait euskal antropologoren kontra jaurtitako leloa dugu hau (Juaristi 1987). Hau da, Euskal Herria asmakizun mitologikoa besterik ez omen da.

Dena den, bai Hobsbawm bai eta Ranger ere, beren kritika egiterakoan (tradizioaren asmakizunaren salaketa, alegia), Nazio-Estatu handiei buruz aritzen dira (Frantzia, Britainia Handia, etab...) eta ez etnonazionalismoari buruz. Eta, ildo horretatik, nazionalismo zibikoak eraikitako herri-kultura orokorra kritikatzetik baldin badago ere, nekez aplika daiteke ikuspegi berdina kultur talde txikiei buruz aritzerakoan (Hobsbawm 1992).

Bestalde, eta goian aipatu bezala, etnoidentitateak, mitoak eta guzti, no-

5. «Errazago da Barandiarani mitologia egiten duela leporatzea norberaren lanean *milenarismo*, *etnizitatea*, *kultura*, *metafora*, *ideologia solariega* edo antzeko kontzeptuen reifikazioez beste mitologia bat ez osatzea baino» (Zulaika 1995: 68).

6. "Jatortasunaren mitoa", euskaldunak egungo europar herriekiko lotura zuzenik ez omen duen herria... "migrazioen mitoa", Kaukaso edota Ipar Afrikatik etorritakoak... "Herri askearen mitoa", bere foru eta lege zaharrak dituen; "Baztertzearen mitoa", oso berandu arte kristautu gabeak... "Ohore galduaren mitoa", XVI. mendean konkistatuak... eta "Berpizkundearen mitoa", Sabino Aranari esker bere kontzientzia berreskuratzen duen herria... (Douglass 1992: 90-91).

nahi ekoizten dira. Izan ere, “asmatu” aditzak adierazten du idealismoetatik at tradizioa zein herri-izaera osatzen dituzten usadioak gizarte-erakuntza jakin baten ondorioak direla. Hobsbawmek berak “hiritarra sortzeko ingenieritza” aipatzen du honi buruz hitz egiterakoan. Prozedura materiala du, bada, herri-izaeraren erakuntza inola ere asmakizun idealista hutsa izanik.

3. Euskal Herria dagoela onartuko balitz bortizkeriari bidea emango litzaiokeela diote

Azken honek, berriz, eman digu espektakulu handiena Antropologiako eztabaidetan eta. Neurri berean, egin ohi diren zenbait ikerketa eta diskurtsuren ahuleziaz zein mugaz ohartzeko baliaigarria izan zaigu. Hamarkada honetako debatea da, nonbait. J. Zulaikak bere Doktorego-tesia gazteleraz argitaratu zuenetik (1990) –aurretik ingelesez kaleraturik bazegoen ere horrek ez zuen polemikarik eragin (1982)–, ohiko kritikaz gain –euskal tradizioa asmakizun mitikoa da, funtsgabea, oinarri arrazistak dituena, euskal izaera konplexu patologikoen bilduma besterik ez da, etab... (ikus bereziki Aranzadi 1981: 523-528)–, bortizkeriari laguntza teoriakoa ematen zaiola argumentatzen da⁷.

Ustezko antropologo hauentzat euskal kultura ulertaraztea nahiz arrazionalizatu nahi izatea onartezina bide da eta “zientifiko bezain etikotzat” har daitekeen jarrera bakarra euskal izaeraren desmitifikazioa eta, ondorioz, ukatzea da.

Zulaikak berak erantzun izan die antropologo hauei guztiei, bai Madrilgo aldizkarietan, eta gaztelaniaz (1995b), bai 1994ko Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroetan euskaraz ere (1995a). Bere aburuz, Madrilgo itzalpean eroso bizi diren sasi-antropologo hauek (Aranzadi, Juaristi, Unzueta) ez dute inoiz etnologia-ikerketarik burutu. Aitzitik, aurriritzi literarioetatik jaulkitzen dituzte beren epaiak, antropologia liburu-ariketa huts bihurtuz. Gertuagotik aritzen diren ildo bereko beste idazleek (Mtz. Gorriarán eta Azurmendi) bertako antropologia-eskolak gutxietsi egiten dituzte antzerako egoeretan sortutako funtsezko ekarpenak kontuan hartu gabe –Lisón Tolosanak sorginkeriaren azterketarako edota Etxezarreta baserriari buruz aritzerakoan– (*ibidem* 78-82) eta etnografiaren alde “sortzailea” alboratuz.

Zulaikaren lanak ordea, etnologia du oinarritzat bere arlo hertsia (antropologia) zein gizarte-zientziei orokorki dagokien liburugintzaz ezaguera oparora duen bitartean. Horrela, eta nolabait laburturik, ironikoki madrilzaleei “parodia” lantzeko gaitasunik eza leporatzen die (beren burua ikerketetan islaturik ez antzemate eta eguneratze akademikoaren falta) eta bertakoei euskal “surrealismoa” zer den ez ezagutzea (kritika mugatua eta “totemista” egitea).

Hala ere, aitzakiz aitzaki, Zulaikak berak kokatu nahi bide du bere burua inon ez dagoen ustezko neutraltasun-arlo hartan eta, zoritxarrez, bortizkeriaren laguntzaile izatearen akusazio tristeari ihes egin nahian frogatutako bide emankorrari eutsi ordez (alegia,

7. Cf. Aranzadi 1993, non, beste bitxikeria batzuen artean, honako ikerketak Herri Batasunaren alde eginiko lanak direla baieztatzen den (66. or.).

“Itziar: The Cultural Context of the Political Violence” lanean bezala hitza protagonistei ematearena), inolako beharrik gabe bere burua zuzitzen saiatzen denean, erakutsitako azterketa-bidea bera da kolokan jartzen duena⁸.

4. Egungo Euskal Antropologiaren erronka teoriko-praktikoak

Joseba Zulaikak berak pairatu behar izan duenez, Euskal Herriaren izaera aztergai hartzen dugun guztiok susmargarritzat hartuak izatea eta hori nola gáinditu behar dugun aztertzea da lehenengo erronka. Izan ere, intelektualki ere diskurtso ofizialetatik kanpo ibiltzeak bere ondorioak baditu. Hau da, desafioa, Toni Negri filosofo italiarrak zioskunez, honetan datza: «Mehatxua- ren soka gogorra apurtu beharra dago. Estatuaren krudelkeriak bultzaturik edozein oposizio-mota terrorismo gisa hartzen duen soka mehatxatzailea» (Negri 1991: 496).

Egun, “Terrorismo” izeneko fenomenoak ikaragarritzko garrantzia hartu duenez gizarte-portaeren definizioetarako, aditu asko bildu ohi dira azken ur-

te hauetan bere definizio eta ondorengo eraginak aztertu nahian (Jenkins 1982). Goian aipaturiko Joseba Zulaikak, William Douglassekin batera, fenomeno horren ikerketa egin du Euskal Herrian (Douglass & Zulaika 1994) modu nahiko kontraesankorrez. Alde batetik, eta hastapenetan gizarte-baloreei buruz ez dela aritu behar aitortzen badute ere⁹ bere mezua, funtsean Zulaikaren ikerketan etengabe errepikatzen dena, gizarte-balorazioa besterik ez da: «Terrorismoaren biktimak ez dute inolako errurik berez sakrifizio errituala besterik ez baita terroristen ekintza»¹⁰.

Bestetik, “Terrorismoa”, kontzeptu zientifiko bezala ulerturik, baztertzearen alde azaldu arren¹¹, ETA, berez, “kontzeptua” dela diote¹².

Izan ere, euskal kulturaz edota euskal gizarteaz egiten diren hurbilketa guztietan islatu egiten dira bertan bizitzen den gatazkaren ondorioak eta, bide batez, gatazka bera. Kolonizaturiko beste kulturen antzera, ikerlariak ezin dio egoera horri ihes egin. Fanon, Calvet edo Memmi bezalako idazleek

8. «Josebaren lanak frogatu digu berriro ere ustezko objektibitate ez dagoela. Jakintsuen zientifizismo literarioak boterearen aurpegia besterik ez duela ezkututzen. Aitzitik, subjektibitatearen ondoriozko sorkuntza zientifikoaren apostolua ere badugu Zulaikatarra. Beraz, erdian egotearena, alde batetik zein bestetik bere kontra ari direla erakutsi nahi izatearena ere, nolabaiteko pose estetikoak izateaz aparte, ez dio mesede handirik egiten bere ikerketen bidez irakatsi nahi duen guzti horri» (Rodríguez 1994: 61).

9. «Esta tendencia –que define al terrorismo más como un problema al que hay que hacer frente que como un fenómeno que debe ser estudiado en sus propios términos viola de esta manera la sentencia de Weber en la que se afirma que *las ciencias sociales son las menos adecuadas para ahorrar al individuo la dificultad de elegir* y, por tanto, también menosprecia el imperativo metodológico de que la ciencia no puede determinar la validez o la falsedad de los ideales últimos» (Douglass & Zulaika 1994: 103).

10. «Terrorismo y sacrificio ritual comparten el rasgo fundamental de que la víctima es inocente» (Douglass & Zulaika 1994: 120). «La categoría de terrorismo es un ejemplo más de objetivización conceptual de un estado físico» (Douglass & Zulaika 1994: 121).

11. «La comparación con la historia de algunas de las categorías antropológicas nos lleva a preguntarnos si el verdadero problema teórico no es otro sino el de abandonar la categoría defectuosa enteramente» (Douglass & Zulaika 1994: 121).

12. Douglass & Zulaika 1994: 115. Izatekotan, kontzeptua barik prezeptua litzateke ETA. Hau da, idealismoetatik at, praktika zehatza, ezkutatu ezinezko baldintza eta gizarte-portaera baten adierazlea.

bezala, kanpoko diskurtsoek ordezkatzetik ez duten bertakoen hitza litzateke, beraz, datu-bilketa garaietarako, antropologo, gizarte-zientzilari edota ikerlarien funtsezko zeregina, oinarriko erronka. Hau da, mintzaira zientifiko adierazia, "emik" deitutako ikuspegi lantzea litzateke egungo euskal antropologiaren desafioa (Pike 1972). Beraz, berezkoak nahiz barne-kulturak jorratuak izan behar dute (harriztekoa bada ere, goian aipaturiko ustezko antropologo askok ez dute euskara bera ezagutzen) erlatibotasun eta guzti gutxiagotze bidean aurkitzen den Euskal Kultura sendotzen joateko.

Baina, datuak jasotzeaz aparte beren eraketa, interpretazioa eta azterketa egin behar denez, planteiatzen den arazo teorikoari aurre egiteko ertz bertsuetako disziplinak erabili behar izango ditugu elkarrekiko harremanetan. Ohiko eztabaidetan Antropologiari Historiari baino estatus zientifiko sendoagoa onartu baldin bazaio, sinkronia zegokion Historiaren diakroniaren aurrean, ahozketasuna idazketaren ordeztaraingoa lehenaldia baino lehen, antzinako kultura *versus* egungo gizarte, herri xumearen bitzita funtsezko gertakizun zein pertsonaiak... eta abar (Buxó 1993: 7-20).

Beraz, etnografia hutsa egin ordeztara, premia handiagokoa dirudi ikuspegi haiek batuko dituen Historia-Antropologia izaera izango lukeen jardunak (Padgen 1991: 43-54).

Honela, Antropologian ere islatzen diren borroka ideologikoen eremu horretan lan egiteko tankera zein aukeren berri ematen dute. Alde batetik, askotan irakurketa entziklopedikoetan oinarriturik baina ia ikerketa ezarri egin gabe, euskal tradizioa asmakizuna besterik ez dela diotenek (Aranzadi, Juaristi, Mtz. Gorriarán, Azurmendi...) bertako antropologia gutxietsi egiten dute frogatu gabeko mitologiaren sortzailea den neurrian. Bestetik "Barandiaranista" direnak (Apalategi, Erkoreka, Leizaola...) Antropologiaren muga hertsia iraunarazten saiatzen dira etnografiaren aldeko apostua eginez. Amerikar eskolen eraginez etnologiarren beharra azpimarratzen den bitartean disziplinartekotasuna aldarrikatzen dutenak ere badaude (Zulaika, Douglass etab...), gehi akademikoki antropologiaren alde ezberdinak jorratzen dituztenak (del Valle, Azcona, Apaolaza, etab...).

Talde zein gizabanakoen artean sortzen diren polemiketan eskola bakoitzaren atzean dagoen Euskal Herriko izaerari buruzko irudia aurki daiteke.

Hala eta guztiz ere, etnografiaz zein etnologiaz gain Euskal Historia-Antropologiaren arabera datu-bilketa "emik" (indigenista) geurean egitea lagungarri gerta dakioko euskal kulturari deskolonizazio-egoeratik ateratzeko. Hauxe litzateke, beraz, gure proposamena.

Bibliografía

- Aranzadi, J., (1981): *Mineralismo Vasco*, Taurus, Madril.
- , (1992): “La necro-lógica etarra”, *Claves* 23.
- , (1993): “Sangre simbólica e impostura antropológica”, *Antropología* 6.
- Azcona, J., (1984): *Etnia y nacionalismo vasco. Una aproximación desde la antropología*, Anthropos, Bartzelona.
- Azurmendi, M., (1993): *Nombrar, embrujar: Para una historia del sometimiento cultural oral en el País Vasco*, Alberdania, Irun.
- , (1995): “Topoi Nazional/Nazionalistak ernazimentuan: Camoesen *Os lusiadas*”, in *Historia: Zientzia ala Literatura?*, UEU, Bilbo, 89-146.
- Buxó, M.J., (1993) “Historia y Etnología: Viejas fronteras, divergencias y nuevos encuentros”, *Historia y Fuente oral* 9, 7-20.
- Douglass, W.A., (1994): “Críticas de las últimas tendencias en el análisis del nacionalismo”, in *Varii, Migración, Etnicidad y Etnonacionalismo*, EHU, Leioa, 1994.
- Douglass, W.; Zulaika, J., (1994): “Sobre la interpretación de la violencia terrorista”, in *Varii, Migración, Etnicidad y Etnonacionalismo*, EHU, Leioa, 1994.
- Gellner, E., (1983): *Nations and Nationalism*, Oxford.
- Guibernau, M., (1994): “El nacionalismo: ¿Ideología de la modernidad?”, in *Autocrítica de la modernidad*, Mintegia, UIMP, Valentzia, 1994ko uztailaren 4-6. *Debats* aldizkarian argitaratuta.
- Hobsbawm, E.J., (1992): *Nations and Nationalism since 1780*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Hobsbawm, E.J.; Ranger, T. (1983): *The Invention of Tradition*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Jenkins, B.N., (1982): “Terrorism and Beyond: An international Conference on Terrorism and Low-Level Conflict”, Santa Mónica, Rand.
- Juaristi, J., (1987): *El Linaje de Aitor*, Taurus, Madril.
- , (1990): “Héroes y traidores: el terrorismo y las falacias antropológicas”, *El País*, 90/05/20.
- Martínez Gorriarán, C., (1993): *Casa, provincia rey. (Para una historia de la cultura del poder en el País Vasco)*, Alberdania, Irun.
- Negri, T., (1991): “Terrorismo y Derecho”, *Terminología Científico-Social*, Anexo, Bartzelona, 496.
- Pagden, A., (1991): “Historia y Antropología, e historia de la antropología”, *Anales de la fundación Juan Costa* 8, 43-54.
- Pérez-Argote, A., (1984): *La reproducción del nacionalismo vasco*, Siglo XXI, Madril.
- Pike, k.L., (1972): “Puntos de vista éticos y émicos para la descripción de la conducta” in Smith, *Comunicación y cultura*, Nueva Visión, Buenos Aires.
- Rodríguez, F., (1994): “In medium stat virtus”, *Larrun* 22, 61.
- Sartre, J.P. (1995) *Burgos, proceso a la colonización*, Likiniano Elkartea, Bilbo.
- Smith, A.D., (1994): “Tres conceptos de nación”, *Revista de Occidente*, 161, 9-10.
- Unzueta, P., (1992): “Del monte al llano: las trayectorias del nacionalismo vasco”, *Claves* 24.
- Williams, C., (1982): *National Separatism*, Cardiff.
- Zulaika, J., (1982): *Itziar: The Cultural Context of Political Violence*, Department of Anthropology, Pinceton University.
- , (1990): *Violencia vasca: Metáfora y sacramento*, Madril.
- , (1995a): “Historiaren aingerua, edo, Euskal Etnografía surrealistari aurre-hitzak”, in *Historia Zientzia ala Literatura?*, 65-88.
- , (1995b): “El antropólogo como impostor”, *Antropología* 7.